

**Inbertsio-politika (laburpena)**

Funtsak errenta finko publiko nahiz pribatuak inbertituko du, ELGEko jaulkitzaileena/merkatuena. Jaulkipenak kreditu kalitate handikoak izango dira edo Espainiako Erresumaren berdinekoak, azken hori txikiagoa bada. %25 gehienez inbertitu ahal izango du, erdi mailako kreditu-kalitateko aktiboetan (BBB- arte), edo Espainiako Erresumarena baino hiru maila txikiagoa dutenetan (azken hori A- baino txikiagoa balitz). Batez besteko iraupena urtebetetik beherakoa. Funtsak %10 inbertitzen du gehienez IKE finantzarioetan eta %10.a dibisa-arriskuan.

\*Funtsak, bere inbertsioekin, ingurumen alderdiak eta/edo alderdi sozialak sustatzen ditu (2019/2088 (EB) Erregelamendua 8. artikulua) eta kontrako gorabehera nagusiak (inbertitzen dituen enpresek ingurumenarean eta/edo gizartearen eragindako inpaktu negatiboak) arriskuen azterketan eta inbertsio-erabaketan txertatzen ditu.

\*Inbertsio-politikaren azalpen xeheagoa funtsaren IFD dokumentuan ikus daiteke.

\*FUNTS HONEK %25 INBERTI DEZAKE ERRENTA FINKOKO KREDITU-KALITATE TXIKIKO JAULKIPENETAN, ETA, BERAZ, KREDITU-ARRISKU HAUNDIA DAUKA.

**Ezaugarri Orokorrak**

Ordarea:	504.277.754,19
Comisiones*:	%0,77
Harpidetza komisioa:	%0,00
Errenbolto Komisioa:	%0,00
Fondo mota:	EURO ERRENTA FINKOIA EPE LABURRERA
Arrisku-profila:	1 1-etik 7- rako eskalan
Inbertsiorako gutxieneko epea:	12 hilabete

\*Incluye comisión de gestión y de depósito.

**2025/02/28an Errentagarritasunak UTB**

<b>1 hilekoa*</b>	<b>3 hilekoa*</b>	<b>Urtekoa*</b>	<b>Urte 1</b>	<b>3 urte</b>	<b>5 urte</b>
%0,20	%0,56	%0,40	%3,13	%1,76	%0,90

\*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.

<b>2025</b>	<b>2024</b>	<b>2023</b>	<b>2022</b>	<b>2021</b>	<b>2020</b>
%0,40	%3,07	%2,78	-%0,92	-%0,44	-%0,41

\*Iraganeko errentagarritasunek ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.


**2025/02/28an Estatistikak**

<b>Lurrunkortasun 1 urte**</b>	%0,22
<b>Lurrunkortasun 3 urte**</b>	%0,42

\*\*Informazio hau ez dago erabiltzarri, fondoaren antzinatasuna edo inbertsio-politikaren azken aldaketarik igaro den denbora, adierazitako epea baino txikiagoa denean.

**Errenta finkoko zorroaren egoera**


<b>Iraupena</b>	0,60
<b>%Kreditu erakusketak</b>	%48,58
<b>Batez besteko rating-a</b>	A-



**Hileko iruzkina**


Hilabetearen zehar, datu ekonomikoekin batera Etxe Zuriko tentsio komertzialak eta geopolitikoak izan dira protagonista. Trumpek muga-zergen erasoarekin jarraitu du, eta Mexikorentzat, Kanadarentzat eta Txinarentzat tarifak eman ditu ezagutzera, eta baita altzairuaren eta aluminioaren, autoen, erdieroaleen eta beste hainbat produkturen inportazioei ezarriko zaizkiela ere. Europarekin harremanen tentsioak gora egin du, Europako inportazioei tasak ezartzeko mehatxuarekin tematzean. Horrez gain, Ukrainan bakea negoziatzeko Estatu Batuetako planari, non ez duen tokirik ez EBk ez Kiev berak ere, Trump administrazioaren kritika minak gehitu zaizkio, itxuraz Europar defentsarekin Estatu Batuek duten konpromisoa deuseztatuz. Nahiz eta mehatxu hoieta asko negoziatzeko arma gisa soilik erabiltzea espero den, egia da Trumpekin munduko ekonomiarekiko ziurgabetasunak gora egin duela. AEBren sendotasuna agerian jarraitzen duen arren, jarduerak datuak espero zirenak baino ahulagoak dira. Prezioen azken erregistroek inflazio-tentsioak desagertu ez direla berresten dute. Ondorioz, Fed-aren presidentek interes-tasak berriz jaisteko presarik ez dagoela errepikatu du. Europa mailan, hazkuntza erritmoa motela jarraitzen du izaten oro har, eta Frantzia eta Alemania dira ahulenak. Oro har, jardueraren konfiantzaren inguruan argitaratutako azken datuak ez dira izan ezustekoak txarrentzat. Hala ere, geldialdi egoera batekin koherenteak jarraitzen dute izaten, eta, baita, abian jarraitzen duen desinflazio prozesu batekin. Bien bitartean, arlo politikoan, Alemaniako hauteskundeak emaitzak gobernu eraketa ez hain konplikatuak utzi du. Hala eta guztiz ere, errenta aldakorrek, Amerikako makro datuen ahuleziak Wall Streeteko balorazio zorroterei batuta, eragin negatiboa izan du Estatu Batuetako indizeetan. Ondorioz, Europako errenta aldakorreranzko fluxua gertatu da, non ekonomia moteltze aurreikuspenak jada deskontatuak ziren. Gainera, Alemaniako hauteskundeak emaitzak eta Ukrainako bakea negoziatzeko ematen duen lasaitasuna izan du. Eurostoxx 50k % 3,34 gehitu du. Wall Streeten, hiru indize nagusiek otsaila negatiboa itxi dute. Gehien, Nasdaq teknologikoak (-% 2,76). Nvidia, adimen artifizialarentzako inbertsio-joera sendoaren adierazle nagusia, argitaratutako emaitza onek ere ez dute lortu hilabete positiboan bukatzea. Munduko gainerako lekuetan, gainerakorrek iguera moderatua izan dute (+%0,35), Shanghaikoak % 2,16 igo du, baina Nikkeik jaitziera nabarmena izan du, -% 6,11. Errenta finkoari dagokioez, tasa subiranoak lasaitu egin dira Atlantikoaren bi alboetan, nahiz eta askoz ere intentsitate handiagoz AEB aldean, momentum ekonomikoaren galeraren sintomei erantzunez. Horri esker, 10 urterako zorrak eskaintzen duen errentagarritasuna lasaitu da, % 4,21era arte. Europan, merkatuak espero du BCEk tasak 75 eta 100 puntu artean jaisten jarraitzea, haren ekonomiari laguntzeko. Horrek Bund alemanaren errentagarritasuna % 2,41ra arte hoztu du. Arrisku-primak apur bat hedatu dira Alemaniarekiko, eta errenta finko pribatuak bere diferentzialei eutsi die. Dibisei dagokionez, euroak hila ia aldaketarik gabe bukatu du dolararekiko (+% 0,13), 1,0376\$ baliora iritsiz.

**Rating-aren araberako banaketa**




Errenta finkoko zorroaren Rating-aren araberako banaketa.

**Iraupenaren araberako banaketa**



Errenta finkoko kontado-zorroaren barne dagoen durazioaren banakuntza interes tasaren kurbaren arabera.

**Sektore nagusiak**



Sektoreen araberako ondarearen banaketak ez du likidezia barneratzen.

Dokumentu honen xedea informazioa ematea da eta inola ere ez da, ez kontratu-elementua, ez gomendioa, ez aholkularitza pertsonalizatua, ez eskaintza, eta ezta eskaera ere. Dokumentu honek ez du ordezten edozein inbertsio erabaki aurretik legez kontsultatu beharreko informazioa; legezko informazioa nagusitzen da edozein desadostasun izanez gero. Inbertsioak merkatuaren gorabeheren mende daude, eta baloreetako eta beste finantzatresna batzuetako inbertsioetako berezko arriskuei lotuta; horregatik, Funtsaren eskuratze-balioak eta lortutako errentagarritasunak gora nahiz behera egin lezakete, eta litekeena da inbertsioegileak hasieran inbertitutako zenbatekoa ez berreskuratzea. Funtsaren legezko informazio-dokumentu guztiak (IFD, liburuxka, aldizkako txostenak, etab.) [www.kutxabankgestion.es](http://www.kutxabankgestion.es) webgunean, entitate komertzializatzaileen webgunean eta CNM/ren erregistroetan kontsulta daitezke.